


SIDEROMETALURGIA ETA EKIPAMENDU-ONDASUNAK SIDEROMETALURGIA Y BIENES DE EQUIPO

S.A. PLACENCIA DE LAS ARMAS



(Santi Yaniz)

Gipuzkoa

Soraluze-Placencia de las Armas

Erdigunea Casco urbano

Beatriz Herreras Moratinos

Enpresa hau xvi. mendetik egon da udalerriko armagintza-tradizioarekin lotuta. Hain zuzen ere, 1573an ezarri zuten Real Fábrica de Armas de Placencia arma-lantegia. Bertan, erabat edota zati batean armagintzan jarduten zuten gremio-tailerrak bildu ziren, Espainiako Koroaren arma-eskarien arabera aritzen zirenak. xix. mendera arte, arma eramangarriak artisau-lanaren bidez ekoizten zituzten, eta ekoizpena gremio-ordenantzek araututa zegoen; horrela, bada, lan horretan maisutza-azterketa gainditu eta gremioetan sartzen bakarrik jardun zezaketen. Hortaz, ez zuen fabrika modernoek tankera handirik; antzekotasunik izatekotan, zera zen, ekoizpen uniforme eskaini zezaketela. Soraluze Deba haranean zabaldutako sistemaren erdigune izan zen. Gainera, arma guztiak bertan aztertzen zituzten bidali aurretik. Arma-ekoizpen horri modu jarraituan eutsi ahal izan zioten, bertako herritarren eguneroko jardueraren barruan sartzen baitzen.

La vinculación de esta empresa con la tradición industrial armera del municipio se remonta al siglo xvi. Fue precisamente en 1573 cuando se establece la Real Fábrica de Armas de Placencia. La denominación hacía referencia realmente a un conjunto de talleres gremiales dedicados, en su totalidad o en parte, a la fabricación de armas según las demandas armamentísticas de la corona. Hasta avanzado el siglo xix la producción de armamento portátil fue exclusivamente artesanal y estaba reglamentada por las ordenanzas gremiales, que limitaban el ejercicio de su manufactura a aquellos que superado el examen de maestría quedaban integrados en los diferentes gremios. Distaba mucho, por tanto, de otras fábricas de concepción más moderna; lo único que tenía en común con éstas era que podían ofrecer una producción uniforme. Soraluze fue el punto central de un sistema que se extendió por todo el valle del Deba. Era, además, el lugar donde todas las armas se examinaban antes de su definitiva expedición. La producción de armamento pudo mantenerse de una manera continuada debido a que formaba parte de la actividad cotidiana de sus vecinos.

Egoera horrek XIX. mende erdialdera arte iraun zuen; garai horretan, armagintzaren barruan etapa berria hasi eta ekimen pribatuak protagonismo handiagoa hartu zuen. Legeria liberal berriak, 1841ean aduanak lekuz aldatzeak eta 1865eko Errege Aginduek gremio-sistema desagerrarazteak erabateko eragina izan zuten aldaketa horretan. Baina aipatutako aldaketek ez zuten lortu Soraluzeko arma-ekoizpena etetea. Egiten jakitearen eta tradizioaren poderioz, urte batzuk lehenago Baltegieta kalean tailer emblematikoa eraikitzen hasi ziren. Garai hartan erabat modernoa zen lantegi hura, eta bertan kokatu zen Euskalduna enpresa pribatua. Soraluzeko armagileetako asko soldatapeko gisa hasi ziren enpresa horretan lanean. Fabrika honek armadarako armak eskala handian ekoizten jarraitu zuen, bereziki Remington fusil ospetsuak. Lantegi hori Maxim-Nordenfeld Company Limited etxearen eskuetara igaro zen 1888an. Konpainia hori Suediako Nordenfeld eta AEBetako Maxim artilleria-etxeek osatuta zegoen (azken hori metrailadorea asmatu zuen konpainia da). Lehendabiziko enpresa horrek konpainia utzi zuenean, Vickers etxea sartu zen haren tokian, eta 1908rako lantegiaren jabe bakarra zen. Orotara, 180 langile aritzen ziren 1901ean. Mende hasiera hartan kanoi-probalekua zuen, Maltzagarako errepidearen ezker aldean. Probaleku horretan kanoientzako kasamata gotorrak zeuden, baita jaurtigai-hargailua ere. Aipatutako probalekuan kanoien erresistentzia-probak baino ez zituzten egiten; horretarako tiro-zelaian ez zuten eremu handirik behar (gainera, Deba inguru horretan ia ezinezkoa zen) (PÉREZ ISCAR, 1901, 16).

Orduantxe, hain zuzen ere, sortu zuten konpainia berria; The Placencia de las Armas Company Limited, alegia. Hasiera batean, Londresen izan zuen helbide soziala. Fabrikaren jabea konpainia berria izan zen 1935era arte, baina urte horretan Sociedad Anónima de Placencia de las Armas eratu zuten, 2005ean itxi duten arte iraun duena. Urte horretatik aurrera, etxe honek Andoaingo fabrikari bakarrik eutsi dio. Andoaingo lantegi hori 2008an monu-

Esta situación se mantuvo hasta mediados del siglo XIX, momento en que se inicia una nueva etapa dentro del sector armero con un protagonismo mayor de la iniciativa privada. En ello influirán de manera decisiva la nueva legislación liberal, el traslado de las aduanas en 1841 y la desaparición del sistema gremial dictada en 1865 por Real Orden. Tales cambios no provocaron sin embargo un corte en la producción de armas en Soraluze; el saber hacer y la tradición hicieron que pocos años antes se comenzara a construir en la calle Baltegieta el emblemático y por aquel entonces moderno taller donde se ubicó la empresa privada Euskalduna, en la que se integraron como asalariados muchos de los antiguos armeros de Soraluze. Esta fábrica siguió produciendo a gran escala armas para el Ejército, especialmente los afamados fusiles Remington. En 1888 la fábrica pasó a manos de la compañía Maxim-Nordenfeld Company Limited, formada por el artillero sueco Nordenfeld y el norteamericano Maxim, inventor de la ametralladora. Con el abandono de la compañía por el primero, entrará en su sustitución Vickers, que en 1908 era ya su único propietario. En 1901 trabajaban en ella 180 obreros. También a principios de siglo contaba con un probadero de cañones, que se encuentra situado a la izquierda de la carretera que conduce a Maltzaga. Se componía de casamatas resistentes para los cañones y de un receptor de proyectiles. El objeto del probadero era casi exclusivamente hacer las pruebas de resistencia de los cañones, para lo que no necesitaba de extensión en el campo de tiro, algo casi imposible en esta zona del Deba (PÉREZ ISCAR, 1901, 16).

Fue entonces cuando se constituyó una nueva compañía, The Placencia de las Armas Company Limited, con domicilio social, inicialmente, en Londres. Hasta 1935 esta compañía fue la propietaria de la fábrica, fecha en la que se constituyó la Sociedad Anónima de Placencia de las Armas, que se ha mantenido hasta su cierre en 2005. A partir de este año la firma mantiene únicamente su fábrica de Andoain, declarada monumento en 2008, que constituye



Kanoien lantegiaren ikuspegia, errepidearen eta Deba ibaiaren arteko tarte estuan eraiki ondoren. (Indalecio Ojanguren. Gipuzkoako Artxibo Orokorra)

Vista de la fábrica de cañones tras su construcción en el estrecho espacio entre la carretera y el río Deba. (Indalecio Ojanguren. Archivo General de Gipuzkoa)



xx. mendearen hasieran eraikitako kanoien muntaketa nabeak Deba ibaiaren eta errepidearen arteko kokaleku estua hartzen du. Burdinazko egituran eraiki zen errematxaturiko saretako zutabeekin eta habeekin, eta barruko aldean gune ireki bakarra du. (Santi Yaniz)

La nave de montaje de cañones construida a principios del siglo xx ocupa el estrecho emplazamiento entre el río Deba y la carretera. Se edificó con estructura de hierro con pilares y vigas de celosía remachada y al interior muestra un único espacio diáfano. (Santi Yaniz)

mentu izendatu dute, eta Gipuzkoan egindako arkitektura modemoaren adibide argienetakoa da.

Soraluzeko fabrika-multzo interesgarria oso baldintzaturik sortu zen, herrigunean espaziorik ez baitzegoen. Horrela, bada, industria-eraikinak luzetara lerrotatuta eraiki zituzten, Deba ibai-ibilguaren eta errepide zaharraren artean. Edozer bazterretatik ikus daiteke. Batzuek gorantz ere hazi behar izan zuten, inguruko industria gehienen antzera. Beste behin ere, Gipuzkoako beste herrigune batzuetan gertatu bezala, Soraluzen ere lur-eremu urria zegoen erabilgarri, eta, zegoen apurra, industria-jardueretara bideratu zuten bereziki, artean indar hidraulikoaren hurbiltasunak oso baldintzaturik. Dependentsia bakoitza eraikitzeko orientazioa kontuan hartu zuten, baita eman beharreko erabilera ere. Ibaiaren meandroan lerrotatuta eta horri lotuta, fabrika-instalazioak bost eraikinetan individualizaturik daude. Pare-parean, sastrakak ezkutatuta, probalekua eraiki zuten. Eraikin bakoitzak ezaugarri bereziak ditu; hala ere, kontzeptio-batasunari eusten diote.

xx. mende hasieran eraikitako solairu bakarrek nabe haitan, kanoiak muntatzen eta doitzen zituzten. Burdinazko egituraz eraiki zituzten, errematxaturiko sareta-zutabeak eta -habeak erabiliz. Era berean, AEBetako tankerako zertxak ere baliatu zituzten. Bi isurialdeko estalkia dute, eta teilatu-gailurra fatxada luzearekin eta Deba ibaiarekin paraleloan dago. Lantegira, jatorriz, fatxada laburretatik sartzen zen, zirkulu erdiko arkudun ateak igarota. Gaur egun itxita daude, eraikin berriak erantsi baitizkiote alboan; horregatik,

uno de los ejemplos más claros de la arquitectura moderna realizada en Gipuzkoa.

El interesante conjunto fabril de Soraluze nació muy condicionado por la falta de espacio en el núcleo urbano. Así las cosas, las edificaciones industriales se levantaron alineadas longitudinalmente entre el cauce del río Deba y la antigua carretera. Su presencia es palpable desde cualquier ángulo. Algunas incluso debieron crecer en altura, tal como hacían la mayoría de las industrias de la zona. Una vez más, y como ha ocurrido en tantos otros núcleos urbanos de Gipuzkoa, también en Soraluze el escaso suelo útil existente se destinó principalmente a las actividades industriales, muy condicionado todavía por la cercanía de la fuerza hidráulica. Se observa que cada una de las dependencias se edificó teniendo en cuenta su orientación y el uso que se le iba a dar. Alineadas y ceñidas al meandro del río, las instalaciones de la fábrica se disponen individualizadas en cinco edificios. Enfrente, y oculto por la maleza, se construyó el probadero. Cada edificio presenta características específicas, pero a pesar de ello guardan una unidad en su concepción.

Las naves de una sola planta, construidas a principios del siglo xx, eran el lugar donde se procedía al montaje y ajuste de los cañones. Se edificaron con estructura de hierro con pilares y vigas de celosía remachados, al igual que las cerchas de tipo norteamericano. Se cubren a dos aguas, con el caballete paralelo a la fachada más larga y por lo tanto al río Deba. El acceso tenía lugar originalmente desde las fachadas cortas por medio de puertas en arco de medio punto, pero hoy día han quedado tapiadas al

burudun sarbide berriak ireki dituzte aldameneko nabee-tan. Argia sabaitik sartzen zaio, baina baita fatxada nagusian dauden burudun baoetatik ere (ardatz bertikalean antolatuta); ibaira ematen duen atzeko fatxadan, berriz, bao apur bat eskartzanoak ere badaude. Azken bao horiek, goi-he-renean, plaka lauz inguratuta daude. Eraikinaren angeluak atxikitako pilastra faltsuz inguratutik daude, eta moldura-dun erlaitza ageri da. Barrualdea guztiz irekia da; eremu li-bre eta erabilgarri zabala dauka, konpartimendutan banatu gabea.

Bi eraikinen artean bulegotara bideratutako eraikina dago, gainerakoetatik oso bestelako itxura duena. Noranzko bakarreko hormigoi forjatuzko egiturako eraikina da, eta adreilu zarpiatuzko hormak ditu. Estalki burudunak ura dauka. Fatxada nagusiko beheko solairuan, erdialdean, burudun sarbidea du. Fatxada horretan burudun baoak daude, hiru erregistrotan eta zazpi ardatzetan antolatuta, hormigoizko egitura sostengatzailearen artean. Egitura nabarmentzeko, pilastra faltsuak daude. Egun desagertuta badago ere, fatxada nagusiak frontoi bat zeukan goialdean, eta tinpanoan etxearen izena ageri zen. Barrualdea oso zainduta dago, eta apaindurarik gabeko nabeen artetik asko nabarmentzen da.

Garaiko agiri grafikoetan islatuta dagoen bezala, 30eko hamarkadaren erdialdean eraikitako tailer-eraikinean ere hiru solairuko eta oinplano angeluzuzeneko eraikina egin zuten; aipatutako eraikinak noranzko biko hormigoi forjatuzko egitura eta adreilu zarpiatuzko hormak zituen, eta burudun estalkian ura zeukan. Eraikinean sartzeko, burudun ateak daude beheko solairuko barrualdean, eta aldameneko nabee-kin komunikaturik daude. Argiztapena, oraingoan ere, hiru erregistrotan banatutako zazpi bao-ardatzen bidez lortzen

adosársele nuevas construcciones y se han abierto nuevos accesos adintelados desde estas naves colindantes. La iluminación es cenital, pero principalmente se logra gracias a una línea de vanos dispuestos en un registro de vanos adintelados y de eje vertical en la fachada principal, y ligeramente escarzanos en la fachada trasera que da al río. Estos se recercan en el tercio superior con placado liso. Los ángulos del edificio se enmarcan con falsas pilastras adosadas y la cornisa aparece moldurada. Su interior es totalmente diáfano, lográndose una amplia superficie libre y útil, sin compartimentación.

Entre estos dos edificios se levanta el edificio de pisos destinado a oficinas, que contrasta por su imagen diferenciada de los demás. Es un edificio de estructura de hormigón forjado unidireccional, con muros de ladrillo revocado y cubierta adintelada con estanque de agua en la parte superior. Cuenta con un acceso adintelado centrado en la planta baja de la fachada principal, la cual se ordena en tres registros y siete ejes de vanos adintelados entre la estructura portante de hormigón. Esta estructura se resalta mediante falsas pilastras. Aunque ya ha desaparecido, la fachada principal remataba en un frontón en cuyo tímpano se enunciaba la firma. El interior está muy cuidado y contrasta con la desornamentación de las naves.

También para el edificio de talleres construido a mediados de los años treinta, tal como se refleja en la documentación gráfica de la época, se optó por un edificio de tres pisos de planta rectangular; con estructura de hormigón forjado bidireccional, muros de ladrillo revocado y cubierta adintelada con estanque de agua en la parte superior. Se accede a él mediante puertas adinteladas ubicadas en el interior de la planta baja que comunican con las naves colindantes. La iluminación procede también de siete ejes



Lantegiak ixten dituzten burudun bao zabalak. xx. mendeko hogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean eraiki ziren. (Santi Yaniz)

Detalle de los amplios vanos adintelados que cierran los talleres. Fueron construidos a mediados de los años treinta del siglo xx. (Santi Yaniz)

da fatxada nagusian, hormigoizko egitura sostengatzailearen artean antolatuta. Egitura hori horma-atalaren gainetik nabarmetzen da, pilastra eskematiko bertikalen bitartez. Beheko solairuko baoek ardatz horizontala dute, eta gaineko solairuetakoekin kontraste egiten dute, horietan bertikalitasuna baita nagusi. Baoak binaka ageri dira, izkinetako ardatzetan eta erdikoan izan ezik, eraikinari erritmoa emateko asmoz. Bulegoetan ere baliabide hori bera erabili zuten.

Azkenik, tratamendu termikoen nabea nabarmendu behar dugu, herrigunetik gertuen dagoen aldean kokaturik. Oinplano angeluzuzeneko nabea da, neurri txikikoa eta solairu bakarrekoa; hormigoi forjatuzko egitura, adreilu zarpiatuzko hormak eta bi isurialdeko estalkia ditu. Estalkian, berriz, uralita dago AEBetako tipoko burdinazko zertxen gainean. Teilatu-gailurra fatxada nagusiarekin perpendikularrean dago. Fatxada nagusian hiru burudun bao-ardatz daude, hiru erregistrotan antolatuta; goiko bi solairuetakoek ardatz bertikala dute, eta beheko solairukoak itxita daude. Ganbara parean arku eskartzano zentralizatu bat baino ez dago. Fatxada nabarmentzeko, frontoiak daude, molduradun erlaitzarekin errematatuta. Atzeko fatxadan eskema bera errepikatzen da. Albo-fatxadetan, bestalde, burudun leihoek osatutako hiru argiztapen-ardatz daude; aipatutako leihoak hormigoizko egitura sostengatzailearen artean banatuta ageri dira.

Nahiz eta 2005etik abandonaturik dauden, nabeak bererabilpen egokiaren zain daude. Eraikin hauek xx. mendeko lehen hereneko arkitekturaren ezaugarri nagusien adibide dira; hirigunean ondo txertatuta eta berarekin harreman hertsian. Jakinik zer-nolako zailtasunak dauden, eta beranduegi izan eta erabat hondatu baino lehenago, ondare garrantzitsu hau ez desagertzeko urratsak eman behar dira. Soraluzek jadanik galduak ditu industria-herriaren nortasuna ematen dioten elementu material asko, eta beharrezkoa da prozesu hori geldiaraztea. Bere nortasun historikoaren bi ikur handiez ari gara: Erregetxe, plaza zaharren gainean kokatua, eta Euskalduna eraikina, 1976an desagertutako lantegia zegoen tokia (gaur egun, udal kiroldegia dago hor). Bi nabe hauek aukera bikaina dira herriguneari nolabaiteko berezitasuna eransteko.

BIBLIOGRAFIA

CALVÓ, J. L., 1997 • PÉREZ ISCAR, I., 1901.

de vanos que se distribuyen en tres registros en la fachada principal, ordenados entre la estructura portante de hormigón, la cual se resalta sobre el lienzo de los muros, recreando las verticales esquemáticas pilastras. Los vanos de la planta baja son de eje horizontal y contrastan con los de las demás plantas, donde predomina la verticalidad, dispuestos de dos en dos, excepto en los ejes de las esquinas y el central tratando de imprimir ritmo al edificio. Este mismo recurso se repite en las oficinas.

Por último, destacamos la nave de tratamientos térmicos, ubicada en la zona más cercana al casco urbano. Es una nave de planta rectangular de reducidas dimensiones, de una sola altura, con estructura de hormigón forjado, muros de ladrillo revocado y cubierta a dos aguas con uralita sobre cerchas de hierro de tipo norteamericano y caballete perpendicular a la fachada principal. Ésta se ordena en tres registros y tres ejes de vanos adintelados, de eje vertical los de las dos plantas superiores y tapiados los de la planta baja. En el nivel de la *ganbara* se abre un único arco escarzano centralizado. La fachada se resalta con frontones rematados con una cornisa moldurada. El mismo esquema se repite en la fachada trasera. En las fachadas laterales se rasgan tres ejes de iluminación formados por ventanas adinteladas, repartidas entre la estructura portante de hormigón

Abandonadas desde 2005, estas naves esperan un nuevo uso y correcta reutilización. Son edificaciones que ejemplifican las características principales de la arquitectura del primer tercio del siglo xx, bien imbricadas en el núcleo urbano en el que se asientan y con el que se relacionan. Conscientes de las dificultades que esto conlleva, y antes de que sea demasiado tarde y se conviertan en ruinas, deben darse pasos para que tan importante patrimonio no desaparezca. Soraluze ha perdido ya notables elementos materiales de su identidad como villa industrial y es necesario frenar tal proceso. Nos referimos a los dos grandes símbolos de su identidad histórica: Erregetxe, situado sobre la plaza vieja, y el edificio de la antigua fábrica Euskalduna, que desapareció en 1976 y cuyo lugar ocupa hoy el polideportivo municipal. La permanencia de estas naves debería considerarse como una buena oportunidad para introducir elementos de singularidad en el casco urbano.

BIBLIOGRAFÍA

CALVÓ, J. L., 1997 • PÉREZ ISCAR, I., 1901.